

Letra larriz

Letra larriz idatzita datorrenean oso diziplina serioa da Ekonomia. Gogoan dut oraindik zelakoa izan zen lehen gerturatzea zientzia honetara. Institutu garaian arbelean irudikatu ziguten grafiko hura, Ekonomian murgiltzeko lehen gezur handia izan zen. Erdigunean kokatuta zeuden merkatu eta enpresak, ekonomiaren eta beraz, munduaren jaun eta jabe ziren. Enpresak aberastasunaren sortzaile ziren bitartean “familiek” beste bi eginkizun betetzen zituztela erakusten zigun irudiak; lantegientzat eskulana alde batetik, eta kontsumitzaile bestetik. Itxura batean kaltegabea zirudien grafikoaren bitartez, Ekonomiari posizio faltsu batetik begiratzen hasi gintzaizkion. Lehendabiziko egun hartatik arrakalaz betetako mundu bat eraikitzen hasi ginen.

Lehen iruzur hau, gezur gehiagoz elikatuz joan zen. Fakultatean Ekonomia ortodoxo eskola ordu asko irentsi behar izan genituen, eztarrian trabatu zitzaizkigun eredu makro eta mikro zorrotzak, formula potoloak eta funtzio matematikoak. Urteak igaro ziren Ekonomia hura hankaz gora jarri eta bestelako bat eraikitzen hasteko. Unibertsitatego bigarren urtea izango zen Marxismoaren teoriak ailegatu zitzaizkigunean. Erne kapitalismoarekin, mingarria da eta! Egun hartan ere, grafiko bat erabili zuen irakasleak Kapitalak lana zelan esplotatzen duen azaltzeko. Kapitalismoak lana, langilea, eta beraz gizona zelan desjabetzen zuen ikusarazteko. Lana, lana, lana, gizona eta lana, Artzeren poesiarren erritmoarekin bat.

Berriz ere urteak pasa ziren Marxe salatutako esplotazio hari beste dimentsio bat emateko. Ekonomia feministaren lehen arnasak gradu-ko ikasketen ostean heldu zitzaizkigun, masterreko eskoletan. Ikuspegi feministak ikusarazi zigun, Kapita-



Aiala Elorrieta
EKONOMIALARIA

Ekonomia feministaren lehen arnasak gradu-ko ikasketen ostean heldu zitzaizkigun, masterreko eskoletan. Ikuspegi feministak ikusarazi zigun, Kapitalismoak lantegietako gizonez gain, etxeetako emakumeak ere esplotatu eta desjabetu egiten dituela. Alegia, Marxen terminoak erabiliz, Kapitalismoak langilea merkatuan esplotatzen duen era berean, unitate domestikoa ere esplotatu egiten duela

lismoak lantegietako gizonez gain, etxeetako emakumeak ere esplotatu eta desjabetu egiten dituela. Alegia, Marxen terminoak erabiliz, Kapitalismoak langilea merkatuan esplotatzen duen era berean, unitate domestikoa ere esplotatu egiten duela. Eskola horietan ere hainbat irudi izan genituen lagun eta guztien artean, *Iceberg* itxurako hura dut gogoan. Icebergaren tontorra begi-bistan dagoen ekonomiaren esparrua da, ekonomia produktiboa. Zatiarik mardulena, erabat ikusezin, urpean gordeta dagoena da eta merkatuz kanpoko ekonomiaren esparru horiek dira sakonean, Bizitza sostengatzen dutenak. Letra larriz, izan ere, Bizitzak zaintzeko gai diren ekonomiez ari gara. Kapitalismoa Bizitzaren aurka baitoa eta gatazka, Amaia Pérez Orozcoren hitzetan, Kapitala eta Bizitzaren artean dago.

Ekonomiako lehen eskola hartan sostengaezina den mundu bat marrazten hasi ginen irudi soil batean oinarrituta. Xalo eta neutrotzat saldu ziguten epizentroan, jainkoa bailiran, merkatuak zituen irudi hura. Egitura sozioekonomiko horretan, helburua kapital metaketa izanik, ez da bizitza eta lurra zaindu behararren arrastorik inon ageri eta ez dago Kapitalismoak eragiten duen kaltearen inongo arrastorik. Antza denez, mundu horren arrakalak ikusi ahal izateko ezinbestekoa da krisialdiak nozitzea, zaintza eta klimaren krisiak pairatzea. Bestela, ez gara gai sinesteko Kapitalismoak lana, gizona eta unitate domestikoa esplotatzeaz gain, ama lurra ere esplotatzen dituela.

Garrantzitsua da mundua nola begiratzen eta ulertzen dugun, horrek baldintzatuko baitu mundu honetan nola biziraungo dugun. Gai larria ere, Ekonomia zelan eraikitzen dugun gure iruditerian. ■